

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru erakundeek Nafarroako Erresumari omenaldia egin diote lore-eskaintzarekin

*Barkos Lehendakariak zuzendu du gaur goizean Nafarroako Errege Artxibo Nagusian egin den errekonozimendu-ekitaldia*

Ostirala, 2018.eko azaroak 30

Foru-erakundeek omenaldia egin diote gaur goizean Nafarroako Erresumari, egungo Nafarroaren sustraia bezala, lore-eskaintza eta musikarekin. Uxue Barkos Lehendakaria buru izan duen ekitaldia gaur goizean egin da Errege Artxibo Nagusian (Nafarroako Erregeen Iruñeko lehengo jauregia), eta, bertan izan dira Gobernuako kontseilariak eta Komunitateko agintari nagusiak.



Lehendakaria, agintariekin batera, koroaren ondotik.

Txantreako Gaiteroen Bandaren musikarekin eman diote hasiera zeremoniari, eta, ondoren, Nafarroako bost merindadeko eta Nafarroa Behereako 31 dantzarik eta txistularien bandak parte hartu dute. Jarraian, Nafarroako bandera astindu dute, eta San Fermin de Aldapako Ezpata-dantzaren ondoren, Barkos Lehendakariak lore-eskaintza egin du oroitzapeneko monolitoaren aurrean. Lehendakariarekin batera izan dira ekitaldian, Parlamentuko lehendakaria, Ainhoa Aznarez, eta bost merindadeko hiriburuetakako alkateak: Iruña, Lizarra, Zangoza, Erriberri eta Tuter.

Zeremoniari amaiera emateko, Nafarroako Ereserkia jo dute, Erresuma sartzeko Martxa.

### **Iruñeko Errege Jauregi zaharra orain Errege Artxibo Nagusia**

Iruñeko Errege Jauregia izandakoa, San Pedroren Jauregia edo Jauregia ere deitua, eta egun Errege Artxibo Nagusia hartzen duena, Antso VI.a Jakitunaren erregealdiko (1154-1194) azken urteetakoa da. Eraikuntza erresumaren berregituraketarekin bat dator, rex Navarrae titulu berria sartzean (aurreko Pampilonensium rex-en aurrean) kanpotik berritzeko eta jabetzako lurraren erdian botere gune bat sortzeko

helburuarekin. Horrela, hiriburuak finkatzeko joera indartu egin zen, XII. mendeko Europako bereizgarria zena.

Eraikina kokapen estrategiko batean dago, Arga ibaiaren gainean dagoen terrazan hain zuzen. Han, Iruñeko lehen herria hedatu zen, Erdi Aroan Navarrerria hiri gisa ezagutzen zena. Horregatik, Jauregiak eginkizun hirukoitza zuen: boterea adieraztea, erregearen egoitza eta erresumaren kudeaketa.

Mendeetan zehar eraikinak zenbait helburu adierazgarri izan ditu, eta gaur, Rafael Moneo arkitekto nafarrak zuzendutako berrikuntza ikusgarri baten ondoren, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren funtsak gordetzen ditu.